

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**

AURKIBIDEA

01/SARRERA.....	3
02/ PROIEKTUAREN DESKRIAPENA ETA METODOLOGIA.....	5
02.1 ADITUEN TALDEA.....	5
02.2 NAFARROAKO ERAGILEEN MAHAIA	7
02.3 NAFARROAKO HERRITARREN MAHAIA	8
02.4 TALDE ERAGILEA.....	9
03/ ADITUEN TALDEA	11
03.1 Adituen Taldearen zeregina	11
03.1.1. Lehenengo bilera	12
03.1.2. Bigarren bilera	15
03.1.4. Hirugarren bilera.....	19
03.1.5. Laugarren bilera.....	23
03.1.6. Bosgarren bilera	26
04/ GIZARTE ERAGILEEN MAHAIA.....	29
04.1 Gizarte Eragileen Mahaiaren lehenengo bilera.....	29
04.2 Gizarte Eragileen Mahaiaren bigarren bilera	31
05/ HERRITARREN MAHAIA	35
06/ PROIEKTUAREN EMAITZAK ETA ONDORIO OROKORRAK	41
06.1 Bizikidetzaren esangura eta mugak zehaztuz.....	41
06.2 Bizikidetzari buruzko eztabaidaren osagaiak (1): Euskara eta nazio identitatea	43
06.3 Bizikidetzari buruzko eztabaidaren osagaiak (2): Nafar identitatea eta gizartearen parte hartzea	46
07/ AZKEN GOGOETA. ETORKIZUNERAKO ILDOAK	48

01/SARRERA

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: Bizikidetza izeneko egitasmoa Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko lankidetzaren markoan kokatzen da. Zehatzago, 2019an zehar gauzatu zen *Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan* izeneko proiektuaren jarraipen modura ulertu behar da. Orduko hartan, galdera sakon sorta bati erantzutea zen helburua: nola bilatu kontsentsu zabalak nafar gizarteak lurralde modura aurrera egiteko eta zein izan zitekeen markorik egokiena identifikazio ideologiko, politiko eta kultural desberdinetako herritarrak elkarlanean aritu ahal izateko giro abegikorrean eta konfiantza demokratikoan oinarritua.

2020an izan dugun abiapuntua, hein handi batez, bertsua izan da: nafar gizartea anitza da, arlo askotatik begiratuta, eta horixe baieztatu zen 2019an zehar izan genituen mota desberdinetako herritarrekin harremanetan. Hala ere, iaz egindako lanak ondorio jakin eta zehatz batzuk ere utzi zizkigun. Era hartara, delako aniztasunak, sarritan aberasgarritzat jotzen zena, maila batzuetara ekarriz gero, bazuela bere ifrentzua, hots, adostasunera heltzeko zailtasuna, eta beraz, ez zela bideragarri ikusten bizikidetza sendorik eraikitzea. Bi ziren gai nagusiak, behin eta berriz azaleratzen zirenak eta oso sarritan elkarren ondoan ez ezik, bata bestearen konponketaren gako modura ikusten zirenak: euskara eta nazio identitateak, eta lehena bigarrenari gailendu zitzaion. Edo bestela esanda, euskarak *ezkutatu* egiten du, gure hizlarien arabera, nazio identitate desberdinen arteko gatazka. Beraz, euskararen gaia konpontzea badirudi ezinbesteko giltza zela gainerako desadostasun asko biguntzeko, konpontzeko, edota haien inguruan adostasunen bat aurkitzeko. *Nafarroan gatazka eragiten duten gaien artean, euskara da alde handiz aipatuena*. Horixe izan zen 2019an burututako egitasmoaren ondorioetako bat; nagusia, apika.

Gatazkaren ifrentzua omen da bizikidetza, baina, txostenean zehar ikusiko dugunez, ezin daiteke ulertu bizikidetza gatazkarik gabeko egoera gisa. Are gehiago, proiektuaren garapenean zehar ikusiko dugunez, zenbaiten iritziz, ez dago bat ere argi zer erantsi liezaiokeen bizikidetzak aniztasunaren kudeaketa demokratikoari. Behin eta berriz azalduko dira bizikidetza kontzeptuari eman dakizkiokeen ulerkerak desberdinak, baina sarrera honetatik bertatik argi utzi nahi dugu zerk bultzatu gaituen gai honetan sakontzera, edo

bestela esanda, zein izan den Eusko Ikaskuntzako proiektu honen Talde Eragilearen abiapuntua: bizikidetzak balio erantsia dakarkio gizarte bizitza demokratikoari haren oinarrian ideia hau dagoelako, ez dela nahikoa elkarren ondoan bizitzea; elkarrekin bizitzea da helburua. Eta elkarrekin bizitzeko, zerbait konpartitu behar da. Konpartitu beharreko gutxieneko horiek zehazten saiatu gara proiektua gauzatzean. Aniztasunaren aitortzatik bizikidetzara urrats bat ematea da, beraz, proiektuaren muina.

Gure aztergaiari dagokionez, nahiko argi geratzen da -bai 2019an zein 2020an egindako proiektuetan- euskararen alde gehiago egiteak edo euskararen zabalkundeari galga ipintzeak marrazten digutela zeintzuk diren egungo nafar gizartean bizi den gatazka nagusietako baten osagaiak. Eta, hain zuzen ere, euskara eta harekin batera sarritan agertzen den nazio identitateen inguruko polarizazioa izan dira aztergai nagusiak honako honetan. Hori horrela, aditu, eragile eta udal teknikari taldeei eskatu diegu galdera honi erantzutea: non eta nola landu beharko liratekeen bizikidetzaren inguruko diskurtsoak eta ekimenak, hizkuntzan edo nazio identitatean oinarritutako aniztasuna ez dadin izan bizikidetzarako oztopo eta bai, berriz, pizgarri. Aipagarria da, azkenik, Eusko Ikaskuntzaren *Aniztasunaren Kudeaketa Demokratikoa Nafarroan: Bizikidetzak* proiektuak, estrategikoa izateaz gain, bat egiten duela Nafarroako Gobernuko Bizikidetzak, Bakea eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bultzatutako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoarekin.

02/ PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA ETA METODOLOGIA

Nafarroako lurraldea hartu dugu esparru gisa berriro ere, eta 2019an bezalaxe, haren aniztasuna izan da abiapuntua, herritarrek eurek halaxe berretsita. 2020an, aldiz, aniztasun horretako osagai bik (euskarak eta polarizazio politikoak) eragindako konfrontazioaren zioetan eta haren kudeaketa egokian sakontzea izan da helburu nagusia. Nolabait esatearren, diagnostikoa eginda, balizko kontsentsuen kudeaketan zentratu gara oraingoan. Posible litzateke gutxieneko adostasun batzuetara heltzea eraman beharreko hizkuntza politikan? Eraginen luke horrek arlo politikoan eta sozialean ustez dagoen gatazka apaltzea? Nori legokioke kontsentsu berri horien lanketaren erantzukizuna eta egokitasuna? Eta, azken batez, erantzun nahi izan dugun galdera nagusia: nola eraiki -edo hobetu- daiteke nafarren arteko bizikidetza? Kontuan hartuta beti, arestian esan bezala, bizikidetza bera ulertzeko modu asko daudela, gerora ikusiko dugunez.

Galdera horiei guztiei erantzuna aurkitzeko, Eusko Ikaskuntzak egin ohi duen legez, nafar herritarren prozesu parte hartzailea sustatzen ahalegindu gara, gaian aditu diren hainbat pertsonaren gogoetatik abiatuta. Zehatzago esanda, hauek izan dira parte hartzaileak:

02.1 ADITUEN TALDEA

Hamahiru kidek (bost emakumezko eta zortzi gizonezko) osatuta egon da, denak ere aniztasun kulturala, bizikidetza, demokrazia eta identitatea, besteak beste, arlo ezberdinetatik aztertu dituztenak. Hortaz, soziolinguistika, zientzia politikoa, historia, filosofia edota soziologiaren eskutik gogoeta egin dute eta kasu batzuetan, arlo politikoan ardura edukitakoak ere egon dira. Ahalegin berezia egin dugu, adituen egokitasun zientifikoa bermatzeaz gain,

nafar gizartearen espektro ideologikoa eta politikoa islatuta gera zedin eta uste dugu lortu egin dugula, neurri handi batean.

Merezi du, gure ustez, talde honek bete duen zeregina nabarmentzea, batzarren maiztasunean eta hausnarketen aberastasunean adierazten denez. Izan ere, 2019an zehar egindako egitasmoan ahotsa eman nahi izan zitzaion nafar herritarrei, eta ahalegin berezia jarri zen herritarren euren aniztasun linguistikoa, ideologikoa, erlijiosoa eta politikoa biltzeko. Beraiek, batez ere, nafar lurralde desberdinetatik hitz eginez, zehaztu zuten zertan zeutzan bizikidetza oztopatzen zuten gako nagusiak, lehenago Aditu Talde bat aritu arren egitasmoaren kontzeptu nagusiak marko edo azalpen teorikoaz janzten. Horren ostean, gizarte mugimenduetan edo arlo politiko-administratiboan eragile zirenekin kontrastatu genituen iritzi haiek. Oraingo honetan, aldiz, Aditu Taldeak bete du zeregin handiena, berebiziko garrantzia eman nahi izan diogulako 2019an zehar behin eta berriz agertzen ziren kontzeptuak argitzeari. Zertan datza kontsentsua? Zer da aniztasuna? Zer da bizikidetza bera? Oinarri-oinarrizko gaiak, maiz aipatuak baina esangura zehatzik gabeak ziren, edo bestela esanda, kontzeptu polisemiko samar modura agertzen ziren sarritan. Helburua, alabaina, ez da izan kontzeptu hauen inguruko adostasunik bilatzea Aditu Taldean, horietan sakontzea baizik, alde desberdinetatik ikustea, alegia. Eta hori ere lortu dugulakoan gaude, geroago azalduko dugunez.

Hona hemen partaideen izena (kide bakoitzak bere izen propioan parte-hartu du eta ez da bere erakundearen ordezkari):

- Alvaro Baraibar (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta Bakea, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako zuzendaria (2015-2019))
- Amaia Nausia Pimoulier (Eusko Ikaskuntza)
- Carlos Lacunza (Coordinador de mejora continua, VW Navarra)
- Carmen Innerarity (I-COMUNITAS - Institute for Advanced Social, Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- David Thunder (Investigador Ramón y Cajal de filosofía política del Instituto Cultura y Sociedad, Universidad de Navarra)
- Eduardo Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta errektoreordea)
- Gaizka Aranguren (Kazetaria. Ondare Immateriallean aditua)

- Julen Zabalo (Euskal Herriko Unibertsitatea. Proiektuaren zuzendari zientifikoa)
- Kevin Lucero (Burlatako Udaleko zinegotzia)
- Nerea Blanco-Aramendia (Ipar Hegoa Fundazioko barne prestakuntza idazkaria)
- Pilar Mayo (Iruñeko Udaleko Berdintasun teknikaria. SKOLAE proiektuaren arduraduna (2017-2019).
- Txoli Mateos (Soziologoa eta Proiektuaren Talde Eragileko kidea)
- Xabier Erize (Soziolinguista. Filologian Doktorea. Euskaltzain urgazlea. Euskararen Nafar Kontseiluko kidea)

Aditu talde honek bost bilera (lau telematiko eta presentzial bakarra) egin ditu, ordu bikoak, gutxi gora behera, honako egutegiari jarraituz:

Lehenengo bilera: 2020-05-22 (telematikoa)

Bigarren bilera: 2020-06-05 (telematikoa)

Hirugarren bilera: 2020/06/18 (telematikoa)

Laugarren bilera: 2020/07/02 (aurrez aurrekoa)

Bosgarren bilera: 2020/10/01 (telematikoa)

02.2 NAFARROAKO ERAGILEEN MAHAIA

Aditu Taldeak hausnartutako kontzeptuak eta izandako ideia elkartruketik aterako baieztapen batzuk aurkeztu zitzaizkien nafar gizartearen arlo anitzetan ibilitako eragileei. Honako eragileek hartu zuten parte batzarretan:

- Amaia Zufia (Bilgune Feminista)

- Gabriel Insausti (Universidad de Navarra)
- Irantzu Vázquez (Fundación Caja Navarra)
- Joseba Santamaría (Diario de Noticias de Navarra)
- Juan Gutiérrez (Consejo Navarro de la Juventud)
- Maider Lasa (Steilas)
- Oskar Zapata (Nafarroako Euskaltzaleen Topagunea)
- Txemi Pérez (Nafarroako Gizarte Foroa)

Bilera bi egin ziren, Covid 19aren krisiaren ondorioz, biak telematikoak.

Lehenengo bilera: 2020/10/20

Bigarren bilera: 2020/10/27

02.3 NAFARROAKO HERRITARREN MAHAIA

Azkenik, Aditu Taldeak eta Gizarte Eragileen Mahaiak egindako gogoetak eztabaidarako aurkeztu zitzaizkion Nafarroako lurralde desberdinetako euskara edota kultura zenbait udal teknikariri, gogoeta horiek eguneroko kudeaketa instituzionalean nola gauzatzen diren ikusteko helburuarekin eta, hartarako, arreta berezia ipinita nafar lurralde osoa ahalik eta ondoen ordezkatuta egon zedin.

Honako hauek izan ziren partaideak:

- David Anaut (Leitza, Areso, Goizueta)
- Ana Flamarique (Tafalla)
- Kiko (Lizarra)

- David (Erronkari eta Zaraitzu)
- Mónica (Castejón)
- Inma (Corella)

Bilera bakarra egin zen, telematikoa, 2020ko Azaroaren 11n.

02.4 TALDE ERAGILEA

Proiektua diseinatu, bilerak koordinatu, eztabaidatu beharreko materiala landu eta txostena idatzi duen taldeak hiru kide izan ditu: Julen Zabalo (proiektuaren zuzendaria), Amaia Nausia (Eusko Ikaskuntzako Proiektu Arduraduna) eta Txoli Mateos (soziologoa). Hirurek hartu dute parte, beraz, egin diren bilera guztietan, Adituen Taldean bakarrik aipatuak egon arren.

	URTAR.	OTSA.	MARTX.	APIRI.	MAIAT.	EKAINA	UZTAILA	ABUZT.	IRAILA	URRIA	AZAR.	ABEND.
TALDE ERAGILEA												
ADITU TALDEA												
ERAGILEEN MAHAIA												
HERRITAR MAHAIA												
TXOSTENA												

03/ ADITUEN TALDEA

Arestian esan bezala, Adituen Talde honek bost bilera egin ditu, oso adierazgarriak, gure ustez, argi eta garbi azaleratu delako nolako konplexutasuna duten esku artean erabili ditugun gaiok.

Talde honen helburu nagusia honako hau izan da: lan ildoak zehaztea Nafarroako bizikidetza hobetzeko, eta, hartarako, herritarrek eurek 2019ko txostenean adierazitako oztopoei buruz gogoeta egitea, alegia, euskarari buruz eta identitate politikoen polarizazioaz. Immigrazio berriak eragindako aniztasun kulturala gatazka iturri ere izan daitekeela jabetu arren, Aditu Taldeari zeharkako gai modura aztertzea proposatu zaio, Talde Eragileak uste baitzuen ez duela polarizazio (hau da, bikoiztasun) argirik eragiten, eta ziurrenik, eztabaida askotan agertuko zela.

03.1 Adituen Taldearen zeregina

Esana geratu da dagoeneko Aditu Taldeko kideen soslai intelektual eta ideologikoa baita gogoeta eremua ere askotarikoa izan dela, eta halaxe islatu da egindako bileretan. Hartara, kideek eurek esanda, batzuentzat bizikidetzaren gaiak berebiziko garrantzia zeukan ikuspuntu pertsonaletik ere, nafar gizartearen ibilbideaz ardura handia zuten eta. Beste batzuen kasuan, aldiz, aniztasuna eta bizikidetza filosofiatik, zuzenbidetik edo soziologiatik landutako gaiak zituzten urte askotako ikergai. Edozein modutan, den-denek adierazi zuten euren esker ona horren taldekide desberdinen artean gogoeta eta eztabaida egiteko aukera izateagatik, ez omen delako ohikoa Nafarroan horrelako foroak antolatzea.

03.1.1. Lehenengo bilera



Talde honek egin zuen lehenengo bileraren helburua, batetik, izan zen 2019an egindako txostenaren aurkezpena egitea eta, bilera egin aurretik galdetuta, eskatu genien hari buruzko iritzia. Hauexek izan ziren egin zitzaizkien galderak:

Zer nabarmenduko zenuke jaso duzun txostenetik? Zerbait falta duela esanen zenuke?

Iritzi orokorra izan zen txostenak modu zehatz eta sistematikoan jasotzen duela nafar gizartearen beraren aniztasun geografikoa, linguistikoa eta politikoa. Horrekin ados egonda ere, txostenean erabilitako kontzeptu batzuen konplexutasuna edo anbiguetatea aipatu zuten batzuek, halako moldez non, batzuetan, zernahitarako balio duten kontzeptu bilakatzen diren -adibidez, aniztasuna- eta, beraz, baliorik gabeko bihurtzen diren. Izan ere, lehenengo bileratik eta txostenaren irakurketatik bertatik nabaria izan zen aditu guztiek ez zutela berdin pentsatzen 2019ko eta 2020ko proiektuetan agertzen diren oinarri-oinarrizko kontzeptuei buruz: aniztasuna, demokrazia, bizikidetza eta gatazka, besteak beste. Esan beharra dago, aurrera jarraitu baino lehen,

taldekide askok adierazi zutela honakoa: orain hamar edo hamabost urte ezinezkoa izanen zen horrelako talde batek batera eztabaidatzea; alegia, bizikidetzan, berez, aurrerapausoak eman direla. Eta ez hori bakarrik: baikortasunerako lekua ere badagoela, belaunaldi gazteek beste bizipen batzuk edukiko dituzte eta.

Hala ere, Iritzi eta jarrera desberdinak, itxarotekoa zenez, bilera guztietan agertu ziren, ez beti modu berean teorizatuak, jakina.

Txostena irakurrita, iritzia emateaz gain, galdera biri erantzuteko eskatu zitzairen taldekideei. Hona lehena:

Proiektuaren gai nagusia bizikidetza dela kontuan hartuta, zeintzuk dira, zure ustez, Nafarroan eztabaidatu beharko liratekeen gaiak?

Oso laburbilduta hiru jarrera, gutxienez, soma zitezkeen: alde batean, bizikidetza goretsi eta gatazkari garrantzia kendu nahi ziotenak. Ez zuten begi onez ikusten Nafarroa beti gatazkari lotua agertzea.

“Nafarroa gizarte modernoa eta garatua da, identitate gatazka bat duen arren; ez zait gustatzen Euskal Autonomia Elkartekoek gu destainaz begiratzea”.

Horixe adierazi zuen kide batek. Eta, beste batean, alderantziz: bizikidetza gutxietsi -ez baitu gauza handirik azaltzen- eta gai batzuek -euskarak, bereziki- eragiten duen gatazka nabarmentzen zutenak, baina argi utzita nafar guztientzat onuragarri dela euskara -alegia, elebitasuna- lurralde osora zabaltzea.

“Bizikidetzarako, hobe da gehiago jakitea gutxiago baino. Aniztasuna onuragarria baldin bada, nor da anitzago: erdaraz bakarrik dakiena ala elebiduna?”

Eta, azkenik, bizikidetza beste testuinguru kontzeptual batean kokatzen zutenak zeuden, hots, bizikidetzaren beharrezan erlatibizatzen zutenak:

“Zergatik egon behar dira elementu komunak elkarrekin bizi ahal izateko? Zergatik egon behar da nafar identitate bat?”

Eta aldi berean kultura aniztasunaren esanguran sakontzea hobesten zutenak:

“Badago nahiko ezkutaturik identitate bat -adibidez, erlijiozkoa- ez dena erraz azaleratuko haren bila ez bagoaz beren-beregi.”

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoan erakundeen inplikazio handiagoa eskatzen zen kasu honetan.

Eta hona hemen bigarren galdera:

Nork edo zein erakundek edo gizarte arlok du, zure ustez, erantzukizunik handiena Nafarroako gizartearen bizikidetza bermatze aldera?

Hemen ez zen egon jarrera desberdin asko. Gutxi gora behera, bitan laburtu daitezke erantzunak. Lehenean, erantzukizun nagusia arlo politikoari egozten zaio, bai alderdi politikoei eta sindikatuari edota Administrazioari -sarritan, Nafarroako Gobernua bera aipatzen zen- eta horren barruan, hezkuntza sistemari, bereziki. Beste jarrera bat, aldiz, herritarrei zein herri mugimenduei eta mota guztietako gizarte taldeei -ohartaraziz etorkinen parte hartzea bultzatu beharko litzatekeela- eta tokian tokiko administrazioari -udalari- protagonismoa ematearen aldekoa zen. Nola edo hala, maila biak batera agertzen ziren batzuetan: erantzukizuna Administrazioak du baina herritarrek sinetsi behar dute posible dela bizikidetza. Hau da, bizikidetzarako gogoia edo jarrera landu egin behar da, ezin da dekretuz ezarri.

03.1.2. Bigarren bilera



Adituen Taldearen bigarren bilera honen funtsa izan zen bizikidetzari buruzko definizio ahalik eta adostuen batera heltzea. Horretarako, eta aurreko bilerarako idatzitako erantzunetan oinarriturik, taldekideei eskatu zitzaien bizikidetzari hiru arloekin harremanetan jartzea definizio komun horren bila abiatzeko. Hauexek izan ziren:

- a) **Bizikidetzari eta begirunea.** Hiru modutan, gutxienez, ulertu daiteke begirunea.
- Desberdintasuna toleratzea.
 - Desberdintasuna errespetatzea herritarren eskubide den neurrian.
 - Legeari begirune izatea, bizikidetzarako gutxieneko arauak batzen dituen heinean.

Beraz, hitz gakoak *tolerantzia*, *eskubideak* eta *arauak* izanzen lirатеke.

Agian *tolerantzia* kontzeptuak jaso zuen kritika gehien taldekideen aldetik, nolabaiteko destaina iradoki lezakeelako; hau da, errespetuaren

mailarik murriztena litzateke, botere jarrera batetik eginda. Horrela, gehitzen dute beste batzuek, tolerantzia eta errespetuaren ordeztu, zilegitasun handien duen kontzeptua eskubidea da. Eskubideak, gainera, testuinguru demokratiko batean ulertuta; alegia, demokraziaren garrantzia nabarmenduz.

Egon zen, hala ere, errespetua eta desberdintasuna kontzeptu hutsal gisa ikusi zituenik eta, hain zuzen ere, demokraziaren testuinguruan hauek ere. Hala, guztiz zilegi jotzen zen legislazioari edo arau jakin batzuei begirunerik ez izatea bide baketsuetatik eginez gero.

Begirune kontzeptuak izan zuen ere defendatzailerik. Modu zabalean ulertu beharra aldarrikatu zen; jarrera kontua litzateke, alegia. Giltzarria da, esan zen, identitateak eraikuntza sozialak, historikoak direla ulertzeko, eta, ondorioz, aldakorak direla, ez direla betierekoak. Gizarte modernoetan identitate kontzeptua jasaten ari den endekapena edo lausotasuna ipintzen zen harremanetan kontu honekin.

Eta, azkenik, tolerantziak ere izan zuen defendatzailerik. Tolerantzia dago, esan zuten taldekide batzuek, ez dagoenean homogeneousaziorako ahaleginik. Alde batetik, desadostasun sakona egonda, bestearen ideiak zilegiak direla onartzen denean; eta, bestetik, desberdinak egoteko posibilitatea onartzen denean.

b) Bizikidetzaren proiektu partekatu gisa. Modu bitan ulertuta hau:

- Herriar guztiak biltzen dituen proiektua
- Proiektu partekatua, kultura aniztasuna eta ikuspuntu ideologiko guztiak batzen dituen

Gogoeta bat baino gehiago agertzen da ondoko zentzuan: proiektu bat konpartitzen ahalegintzea bera bada zerbait partekatzea. Beraz, garrantzitsuena ez da *zer* partekatzen den, baizik eta *no/a*. Are gehiago, esaten da proiektu partekatuaren ideiak berak ez duela errespetatzen aniztasuna. Ezin daiteke pentsatu nafar guztiek antzera pentsatu edo sentitu behar dutenik. Hori bai, ideala ez da proiektu batek, edozein delarik ere, %51ren atxikimendua bakarrik izatea; kontsentsu zabalagoak lortzen saiatu behar da. Horretan sakonduz, gehitzen da, gizartea eta demokrazia batzen baditugu, aniztasuna da emaitza eta haren muga giza eskubideak. Zeintzuk izan daitezkeen muga horiek

eztabaida garatu ahala argituko da. Horrela, proiektu partekatu bat egonen da nafar herritarrek sentitzen dutenean posible dela eztabaida arrazionalaren bidez adostasun batzuetara heltzea.

Illo horretatik joanda, kide batzuk adierazten dute hainbestetan aipatzen den ustezko asaldura politikoa ez dela horrenbesterako, garrantzia kenduz, horrela, 2019ko txostenean hainbat herritarrek esandakoari. Baina, beste kide batzuk, txosten berean oinarrituta, zalantza agertzen dute sektore jakin batzuen jarreraz edo prestasunaz elkarrizketaren bidez proiektuak partekatzeko. Hain zuzen ere, *galtzail*e sentitzen zirenek (euskal hiztunek, kasu honetan) elkarrizketarako prestasun handiena erakusten zuten eta. Ematen du, gehitzen da, ezinezkoa dela proiektuz aldatzea eta hori beti izanen dela gaztelaniaz egiten dutenen proiektua. Ez badago gaztelaniaz eta euskaraz bizitzeko aukera berdintasunik, ez dago proiektu partekaturik.

Honen kontrapuntua ipintzen dute beste kide batzuk adieraziz errazagoa litzatekeela proiektu partekatuak egotea identitateari ez balitzaio emanen horrenbesteko garrantzirik. Hau izanen da hurrengo azpigaia, hain zuzen ere.

“Konstituzionalistak eta independentistak, adibidez, gai izan beharko genuke elkarrekin bizitzeko gure diferentzien gainetik.”

c) Bizikidetzarako beharrezkoa da gutxieneko identitate komuna (politikoa, kulturala, lurraldekoa,...)

Orokorrean, oso kide gutxi agertu ziren baieztapen horri erabateko atxikimendua ematen. Esan liteke multzo bitan, oro har, sailkatu daitezkeela adierazitako iritziak.

Alde batean leudeke uste dutenak talde identitateak beharrezkoak direla baina zalantzan ipintzen dute Nafarroa osorako identitate komun bat egon beharra. Zergatik egokitu behar zaio lurralde bati identitate bat eta bera bakarra? Estatuak dira homogeneousazio lan horretan dihardutenak.

“Nafarroan berdin gertatzen ari da: lurralde bat daukagu eta, kosta ala kosta, identitate bakarra eraiki nahi dugu haren inguruan, errealitateari ihes eginez. Hori gertatzen da euskararekin ere, nafar identitatea euskararen oinarritzen denean ahaztu egiten da hizkuntza erromantze bi ere badaudela.”

Irlandak, adibidez, gehitzen da, nazio identitate indartsua du eta nazio hizkuntza oso ahula da. Idealena, dio beste batek, litzateke nazio identitateak garatu ahal izatea hil ala biziko areriotasunik gabe.

“Identitate horiek subiranotasun terminoetan ulertzen dira eta XIX. mendeari dagozkio.”

Gehienbat, joko arauak adostu behar dira, batez ere. Ez dago, beraz, nafar izateko modu bakarra eta izate hori ere modu askotan ulertu daiteke. Ez dago nafar onik eta nafar txarrik. Are gehiago, kide baten iritziz, bere identitatea ez du definitzen bere aberriak (Espainiak) ezta Nafarroak ere.

“Esanguratsuak diren balio batzuek definitzen dute nire identitatea: elkartasunak, justizia sozialak, berdintasunak...”

Eta, beste aldean, identitatearen ezinbestekotasuna azpimarratzen dutenak daude, ikuspegi desberdinetik eginda ere. Hartara, batzuentzat gakoa euskara da:

“ez da odola, ez da lurraldea euskaldun egiten gaituena; hizkuntza da.”


Badago ere bestelako iritzirik: identitate partekatua susmagarri bihurtzen da ematen duelako aniztasunaren aurkakoa dela.

“Baina identitateak badu alde on bat: demokrazia modernoek hobeto funtzionatzen dute jendearen arteko identifikazio loturak daudenean.”

Bestalde, 2019ko txostenean argi eta garbi agertu zen jendea oso harro sentitzen zela nafar izateaz. Beraz, nafar identitatea egon badago, eta onuragarria izanen litzateke

“Identitate hori zibikoa izatea, alegia, lurraldeari lotua, demokratikoena delako: nafar dira Nafarroan bizi diren pertsona guztiak.”

03.1.4. Hirugarren bilera



Hirugarren bileraren helburu nagusia izan zen gutxieneko adostasunak lortzea gai nagusien inguruan: euskara eta polarizazio politikoa. Hartarako, galdera sorta bat bidali zitzaien taldekideei, haien erantzunekin eztabaidarako oinarritzko dokumentu bat egiteko helburuarekin. Alta, aurreko bileretara gaietara ez itzultzeko, aurre baieztapen batzuk ezarri ziren, nola edo hala, taldekide guztien -edo gehienen- onespina jasotzen zutenak, aurreko bileretan esandakoa bilduta. Honako hauek ziren:

Nafarroako gizartea demokratikoa den heinean, onartutzat eman daiteke:

- a) Bizikidetzak ez dakarrela ezinbestean gatazka politikorik eza
- b) Bizikidetzak ez dakarrela homogeneousun kulturalik

c) Bizikidetzak ez dakarrela proiektu bakar bat partekatu beharrik.

Hortaz, ariketa hau planteatu zitzaien taldekideei

*1.- Adierazi, zure iritziz, Nafarroan bizikidetzaz zailtzen duten **hiru oztopo**, beti ere identitate polarizazioaren eta euskararen inguruan.*

*2.- Adierazi, zure iritziz, Nafarroan bizikidetzarako onuragarri izanen liratekeen **hiru proposamen** zehatz, beti ere identitate polarizazioaren eta euskararen inguruan.*

Taldeak hogeita bost bat oztopo adierazi zuen polarizazio politikoaren gaian eta beste horrenbeste euskararen gaian. Luzeegi joko luke hemen horien guztien berri zehatzik emateak, baina nabarmentzekoa da espektro zabal-zabala betetzen zutela. Hala, batzuetan, polarizazio politikoaren gaian taldekide batzuek euskal nazionalismoaren asmoei egozten zien giro gaiztoaren errua eta beste batzuek nafar eskuindarraren intolerantziari. Euskararen gaian, antzeko zerbait gertatzen zen. Batzuen iritzia zen euskara gatazka iturri bihurtzen zutela euskaltzaleek euskara inposatzen saiatzen direlako jendearen borondatearen kontra; eta, aldiz, beste batzuek adierazi zuten Euskararen Legeak ezarritako lurralde zonifikazioa oztopo bat zela euskararako eta hori desagertu arte ez zela egoera baretuko ez euskaldunen eskubideak bermatuko ere. Hortaz, Talde Eragilearen iritziz, helburua ezin zitekeen izan oztopoei buruz hitz egitea, eztabaida nahiko antzua aurreikusten baitzen, jarreraren artean zegoen distantzia handia ikusita. Erabaki zen gutxieneko adostasunei buruz gogoeta egitea eta horren harira proposamenak egitea, askoz ere emankorragoa izanen zelakoan. Hots, taldekideak batzen zituzten gauzetan gehiago zentratzea banatzen zituztenetan baino.

Esan bezala, polarizazio politikoa dela eta, taldekideen aldetik jasotako erantzunak, itxarotekoa zenez, askotarikoak izan ziren. Alabaina, adostasun batzuk ere bazeuden. Honako hauek, adibidez, taldekide askok (ez denek, jakina) izendatu zituzten oztopo modura; alegia, oztopoak identifikatzean adostasuna egon zen:

- *Kultura demokratikorik eza*
- *Adostasunera heltzeko gaitasunik eza*
- *Bestea aitortzeko gaitasunik eza*

- *Euskararen erabilera politikoa*

Horrez gain, haiek aipatutako gai batzuk baztertu behar izan ziren, ikergaitik kanpo geratzen zirelako nonbait. Halaxe gertatu zen biolentzia politiko, memoria historiko eta hezkuntza gaiekin, nahiz eta azken hau hurrengo batzarretan aztertzekoa zen.

Nolabaiteko baheketa eginda, hauexek izan ziren gai aipatuena:

- *Bizikidetzarako gizarte agertoki baten beharra*
- *Lurralde kohesioa*
- *Identitate sinboloak*
- *Deszentralizazio administratiboa*
- *Itun politikoa*

Gai horiek hartuta, lau baieztapen jarri ziren mahai gainean eztabaidarako. Lehenengo biak identitate polarizazioaren inguruan:

1. *Ez dago nafar identitate bakar bat. Beraz, identitate guztiek eduki beharko lukete talde adierazpenerako eskubidea eta horrek esan nahi du edozein **identitate sinbolo** izan behar dela onartua, baldin eta giza eskubideren bat kaltetzen ez badu. Hartarako, batetik, beharrezkoa da gizarte maila askotan **bizikidetzarako agertoki sozial bat** eraikitzea eta, bestetik, eragile politikoek, sindikalek eta bestelakoek konpromisoa hartu behar dute **itun politiko** bat gauzatzeko konfrontazio politiko demokratiko baten gutxieneko arauak adieraziko lituzkeena.*
2. *Nafar gizarteak demokrazian aurrera egin dezan eta konfrontazio maila txikiagoa izan dadin, batera joanen liratekeen prozesu bi gauzatu behar dira, bateragarriak baina itxuraz kontraesanean daudenak. Bata, **lurralde kohesioa** da. Komunikazioaren eta harremanen hobekuntzak (garraioa, merindadeen arteko proiektuak, barne turismoa...) eragin onuragarria izanen du lurraldearen eta biztanleen arteko ezagutzan, eta, horrek, aldi berean, gizarteak behar*

*duen gutxieneko konfiantza hobetuko du mota askotako politika orokorrak aurrera eramateko orduan. Prozesu horren ifrentzua **deszentralizazio administratiboa** izan behar da. Nafar herritarrek sentitzen badute euren arazo espezifikook kudeatzeko baliabideak dituztela, egitate horrek ere eraginen du lurralde komunitateen kohesioan baita nafar lurraldearen zona desberdinen artean sortu litekeen elkarrenganako konfiantzan ere, halako moldeez non ez baita egonen bazterturik edo diskriminaturik egoteko sentimendurik administrazio zentralaren jokaera dela medio.*

Euskarari buruzko proposamen biak egiteko, Talde Eragileak honako gai hauek hartu zituen, Adituen Taldean sarritan agertzen zirenak:

- Euskara, ondare kultural gisa. Prestigioa lortu beharra.
- Euskara bultzatu beharra
- Euskararen ezagutza, eskolatik bertatik.
- Euskararen erabilera bermatzea nafar lurralde osoan
- Hizkuntza gaitasuna bermatzen duen hezkuntza eredu bakarra edo hezkuntza eredu desberdinak, gurasoen borondateetik abiatuta.

Hortaz, honako baieztapen bi ipini ziren mahai gainean:

3. *Euskara **nafar kultura ondarearen zati** ukaezina da eta izaera hori aitortu behar diote Nafarroako erakunde publiko guztiek. Euskarak bizi duen egoera kontuan hartuta, nafar Administrazioak ardura hartuko du euskal hizkuntzari prestigio publikoa emateaz eta haren **erabilera eta irakaskuntza bultzatuko ditu**, beti ere nafarren borondateetik abiatuta. Nafarroa, beraz, **hizkuntza ofizial bi** dituen komunitatea izanen da, eta biak erabili ahal izanen dira nafar lurralde osoan zehar.*

4. *Hezkuntza sistemak bermatu behar du euskararen oinarritzko ezagutza, halako moldez non eskolaratutako edozein pertsona gai izanen den gutxieneko maila batez jabetzeko euskararen ulermenean. Hori horrela, curriculumean euskarak betetzen duen lekuaren arabera ere desberdinak sortuko dira. **Hezkuntza eredu horiek nafar lurralde osoan aplikatu ahal izanen dira, beti ere ikasleen gurasoen eskariari eta borondateari men eginez.***

Eztabaida mamitsua egon zen, aurreikusi zitekeenez, eta hobeto egiteko, talde bitan banatu ziren adituak, eztabaidaren ostean talde bakoitzaren ekarpenak batera komentatzeko. Bilera amaituta taldekide bakoitzari bidali zitzaion dokumentu bat aurreko lau baieztapenak azalduz puntuz puntu honako helburuarekin: taldekideak ipini zezan ea ados zegoen, ea konforme zegoen edo ea ñabarduraren bat adieraziko lukeen. Hau da, aukera eman zitzaion taldetik kanpo pentsatzeko eta iritzia (ñabardura guztiekin) idatziz adierazteko. Edozein kasutan, laugarren bileran erabilitako dokumentuan adierazten denez, esan liteke eztabaida egon zela bereziki

- a) Sinboloen erabileran (batez ere ikurrinaren kasuan) eta, batez ere
- b) Euskara ikasteko derrigortasunaren eta borondatearen artean.

03.1.5. Laugarren bilera

Bilera honetara bertaratu aurretik, adituek aukera izan zuten gorago aipatutako lau baieztapenen inguruan gainerako kideek egindako ñabardurak, berretsitako eta ezetsitako iritzia irakurtzeko, horiek puntu desberdinetan sailkaturik. Argitu behar da ñabardurak, batzuetan, horixe baino ez zirela: ñabardurak. Beste kasu batzuetan, aldiz, desadostasun argia adierazten zuten.

Taldekideek egindako ezeztapenak eta ñabardurak, laburtuta, honako hauek izan ziren:

A) POLARIZAZIO POLITIKOA

- Oro har, adostasuna egon zen baiesteko orduan **ez dagoela nafar identitate bakarra**. Taldekide batek ñabartu zuen, berez, gaur egun, identitate horiek badutela adierazteko eskubidea eta Nafarroa gizarte demokratikoa den heinean, identitate politikoak eta sindikalak hauteskundeen menpe daudela. Beste kide batek ñabartu zuen bereizi behar zela adierazteko eskubide juridikoa eta morala. Azken honek bestelako erantzukizunak ditu.
- Identitate **sinboloen onarpenean** ere adostasuna egon zen, honako ñabardura batekin: onartuak izan behar dira sinboloak dagozkion erabilera eremuan.
- Adostasuna egon zen **bizikidetza marko edo agertoki** baten eraikuntzari ekiteko tresnak bilatzeaz. Ñabardura batekin: gaur egun, egin egiten da lan hori, Nafarroako Gobernuak bultzatua, hain zuzen ere.
- Eragileek bete beharreko **itun politikoaz**, adostasuna ere egon zen, ñabardura batekin: ituna egin baino, berregin egin beharko litzateke, joko demokratikorako gutxieneko arauak dagoeneko daudelakoan.
- **Lurralde kohesioaren** harira, ñabardura gehiago egon ziren, batez ere kide batzuek ez zutelako argi ikusten oso lagungarria edo ezinbestekoa denik bizikidetzarako; edo ez zutelako uste areriotasun mailak oso altuak direnik. Eta, beste ñabardura bat izan zen lurralde kohesioak ezin duela ekarri kultura kohesiorik.
- **Deszentralizazio administratiboaz**, antzeko ñabardurak egin ziren. Batetik, egon badagoela; hobetzea litzateke kontua. Beste ñabardura bat: behetik gora egin beharra.

B) EUSKARA

- Adostasuna baiestean **euskara nafar ondare kulturalaren zati** dela. Ñabardura bat: euskarak ezin du izan presentzia bera lurralde osoan.



- **Nafar Administrazioak ardura** izan behar duela euskarari prestigioa emateaz, adostasuna dago, baina ñabardura bat baino gehiago borondatezko izaeraz. Batzuek, guztiz alde egiteko, beste batzuk, aldiz, zalantzan ipintzeko hizkuntza politikak borondate hutsez aplikatu daitezkeela.
- **Nafarroako hizkuntza biak ofizial eta lurralde osoan erabilgarri.** Adostasuna, oro har, baina ñabardura batzuekin. Batetik, kide batzuk herritarren eskaria kontuan hartzea eskatzen dute. Bestetik, erabilera kontsentsu sozialaren menpe egon behar dela, eta kontuan hartu behar direla zona bakoitzaren errealitate soziolinguistikoak. Horretaz gain, irakaskuntzan erabilera araututa dago eta lurralde osora zabaltzen da; hedabideetan ere berdin, eta administrazioarekiko harremanetan erabilera graduala ere araututa dagoela.
- Hezkuntza sistemak **euskararen oinarritzko ezagutza** bermatu behar duela eta, adostasuna, berriro ere, ñabardura batzuekin. Batetik, *bermatu* beharrean, *eskaini* izan beharko litzatekeela aditza. Horrela ez bada, euskara derrigorrezko bihurtuko litzateke eta hori desadostasun iturri argia da. Antzeko ñabardurak egiten dira beste kide batzuen aldetik, baieztapen hori kontsentsuak eraikitzeke oztupo delakoan.
- Hezkuntza sisteman **hizkuntza eredu desberdinak** sortzearen inguruan, aurreko puntuaren gisako ñabardurak: *sortu* beharrean, *eskaini* agertu beharko litzateke. Aitzitik, beste ñabardura bi ez doaz ildo beretik. Batak oinarritzko ezagutza bermatu behar dela dio. Eta besteak D ereduak bakarrik bermatzen duela euskararen ezagutza.
- Hizkuntza ereduak nafar lurralde osoan aplikatzekoak dira, **gurasoen eskariaren menpe** leudekeela eta, adostasun handia dago, baina berriro ñabartzen da oinarritzko ezagutza bermatu behar dela, batetik, eta bestetik, gaztelania eta euskara, maila berean, ezagutu behar direla eskolan.

Laugarren bilera honetan, hortaz, taldekide guztiek egindako ñabardurak, ezeztapenak eta baieztapenak eztabaidatu ziren eta, berriro ere, desadostasun handiena agertu zen euskara bultzatu beharraren inguruan; alegia, nolako pisua izan behar duen borondateak, kontsentsu bila goazelarik, eta zein neurritan alferrikakoak diren hizkuntza politikak gutxieneko obligaziorik

ez badago. Identitateen sinboloei buruz ere hitz egin zen, baina hemen jarrerak ez ziren hain argiak.

03.1.6. Bosgarren bilera



Bilera honetara etorri aurretik, Aditu Taldekideei banatu zitzaaien galdetegi labur bat, alde batetik, aurreko lau bileretan ikusitako gaien berrikuspena izan nahi zuena eta bestetik, etorkizunari begira, gogoeta eskatzen ziena taldekideei nafar gizartean kontsentsuen eraikuntzaren ildoak, arloak, erakundeak... zeintzuk izan behar ziren adierazteko; nolabaiteko irudikapen ariketa bat, alegia. Galdetegi honen erantzun guztiak banatu zitzaizkien berriro taldekideei, horietaz eztabaidatzeko azken bilera honetan.

1. Galdera: Zuen ustez, badago legislaziorik edo araurik zaharkituta gelditu dena eta nafar herritarren arteko kontsentsuak lortzeko oztopo bihurtu dena?

Mota guztietako jarrerak adierazi ziren gai honetan. Batzuentzat, kontsentsuak eta bizikidetza ez daude inolako legeren menpe: nahi izanez gero, eragile sozialak heldu daitezke hitzarmenak egitera eta egin egiten dira. Arlo politikoan, adibidez, aspalditik. Beste batzuentzat, Nafarroak badauka elkarbizitza bermatzeko arategi egokia; arazo bakarra da ez dela batzuen gustukoa. Kideren batek identitate sinboloen afera aipatu zuen oztopo modura; beste batek, hizkuntzen arteko hierarkia (euskararen kalterako) ofizialki jasoa dagoena; eta beste batek, aldiz, euskara ezarri nahi izatea jendearen borondatearen gainean oztopo argia da bizikidetzarako. Beste kide batek adierazpen zorrotza egiten du: Nafarroan gizartearen zati bat euskal herritar sentitzen da eta beste zati bat ez. Erronka da biak sentitzea ordezkatuta bizitza sozialean eta instituzionalean. Eta, neurri batean, hori betetzen ari da, aldaketa politikoak gora behera.

2. Galdera: Badago zuen ustez nafar bizitza sozial edo politikoaren arlorik berraztertzeko premia duena konfrontazio politikoa biguntze aldera?

Berriro ere erantzunak mota askotakoak izan ziren. Kide bik iragana eta biolentzia politikoa aipatzen dute zoru etiko sendoa eraiki ahal izateko. Beste batzuk, aurrekoan bezalaxe, ez dute ikusten inolako beharrianik ezer aldatzeko. Bidea egin behar da, diote, eta bertan elkartuko gara. Identitate gaiak gainditutzat emanez, *benetako* arazoetan zentratzea: osasuna, ekonomia, gizarte eskubideak... Beste kide batek aipatzen du arazo bat dagoela agintariak gobernatu ahal dutelako gizartearen %51ren atxikimendua bakarrik izanda. Beste batek, berriro ere, arreta euskararen egoeran ipintzen du: arautu egin behar da bere ofizialtasuna nafar lurralde osoan, arlo publikoan lan egiteko eskakizuna landu eta apurka-apurka D eredua izatea eredu bakarra eskolan. Badago ere uste duena, berez, bizikidetza ezin dela arautu; jarrera kontua da eta hori eskolatik ikasi behar da; hezkuntza sistemari protagonismo handiagoa eman behar zaio. Eta, azkenik, ekarpen baikorragoa: *kalitate demokratikoa* nafar gizartearen ardura da aspalditik. Eta horretan diraute instituzio politikoak. Gaur egun, asko dira parte hartzerako aukerak; etengabeko hobekuntza bilatu behar da eta maximalismoak baztertu.

3. Galdera: Egin ditugun bileretan adierazi dituzun ideia eta iritzi guztiak kontuan hartuta, zertan egonen zinateke prest aldatzeko, negoziatzeko edo amore emateko ere, beharrezkoa balitz?

Berriro ere, gai aipatuena euskara izan zen, nahiz eta, zeharka ere, beste batzuk aipatu ziren (identitate sinboloena, adibidez). Era hartara, badira kide batzuk adierazten dutenak nafar lurralde osoan euskararen ofizialtasuna den arren beren balizko lorpen kutuna, prest agertzen direnak, bizikidetzaren alde, gai hori kontu handiz, progresiboki, modu kontsentsuatuan eta gatazkak saihestuz landu dadin.

4. Galdera: Iruditzen zaizue badagoela nafar bizitza sozial eta politikoaren arloren bat talde honetan aztertu ez duguna eta bizikidetzarentzako onuragarria izan litekeena?

Hau izan zen Adituen Taldeari egin zitzaion azkenengo galdera. Berritasun handirik ez da somatzen erantzunetan, taldekide guztiek, gutxi gora behera, bileretan zehar esandakoa berretsi baino ez zuten egiten eta. Salbuespen bi, agian, aipa litezke. Taldekide batek eskatu zuen arreta handiagoa ematea nafar herritarren erlijiozko aniztasunari, alegia balio moralen aniztasunari, abiada bizian aldatzen ari baita. Azterketa hori beti giza eskubideak eta kultura guztiak barne hartzeko helburuarekin egin beharko litzateke. Bigarren salbuespena honako hau izan zen: taldekide batek esan zuen haren ustez ez direla aipatu Aditu Taldearen bileretan dagoeneko indarrean dauden hainbat ekimen bizikidetzaren hobetzea helburu dutenak, eta, orokorrean, ez dela kontuan hartu zenbat hitzarmen, adostasun eta mota askotako itunak egiten ari diren urteotan nafar gizartean, bereziki, bizikidetzaren politikoa eta linguistikoa hobetzeko asmoz.

Bileraren bigarren zatian eztabaidatu zen, ez oso sakonki, zeintzuk izan zitezkeen, adituen iritziz, arlo sozialak, erakundeak edo taldeak, oro har, erantzukizun eta boterea edukiko luketenak bizikidetzaren gaian eragiteko beste. Labur esanda, hiru aipatu ziren. Arlo politikoa bera: gobernua, alderdi politikoak eta abar; batetik, bestetik, hedabideak eta sare sozialak, gaur egun duten irismen ahalmenagatik eta, azkenik, hezkuntza sistema, balioen transmisio eztabaidatua igorri dezakeelako.

04/ GIZARTE ERAGILEEN MAHAIA

Gizarte Eragiletzat jo da nafar gizartean edozein ekimen sozial, kultural, edota politikotan diharduen pertsona. Gizarte Eragileen Mahaiaren helburua zen Aritu Taldeak erdietsitako adostasunak (oso oinarrizkoak eta nahiko gutxi, egia esan) eta egondako eztabaida nagusiak aztertzea eta, jakina, haien iritzia plazaratzea horien guztien inguruan.

Hartarako, bilera bi egin ziren, biak telematikoak.

04.1 Gizarte Eragileen Mahaiaren lehenengo bilera



Adituen Taldearekin egin bezala, lehenengo bileran aurkeztu zitzaizkien 2019an egindako txostena eta 2020an garatzen ari zen proiektua. Haien iritzia eskatuta, oro har, taldekide guztiek onetsi zituzten biak. Bizikidetzarako identifikatutako gai nagusiekin ere ados agertu ziren eta, horrez gain, eta eztabaida hasi baino lehenago, kide batek adierazi zuen bizikidetzaz ulertzeko modua, edo bizikidetzaz bera, desberdina izanen zelako susmoa zeukala

belaunaldi berriak heldu ahala. Berez, aldatuta dagoela giroa dagoeneko eta urte batzuk pasatuta gehiago igarriko dela aldaketa hori.

Hori horrela, Adituen Taldearen hirugarren bileran ezarritako premisa berdinak ipini ziren mahai gainean bizikidetzaz gogoeta egiten hasi baino lehen, alegia:

Nafarroako gizartea demokratikoa den heinean, onartutzat eman daiteke:

- Bizikidetzak ez dakarrela ezinbestean **gatazka** politikorik eza
- Bizikidetzak ez dakarrela **homogeneotasun** kulturalik
- Bizikidetzak ez dakarrela **proiektu bakar bat** partekatu beharrik.


Erran nahi baita, Nafarroa gizarte modernoa eta anitza da. Oinarri horretatik abiatuta, adierazi zitzaien eztabaidari ekitea gai horretaz ikusi daitezkeen jarrera desberdinen harira, ohartaraziz, halaber, baieztapen hauek, Adituen Taldearen eztabaidetatik aterata, izan zitezkeela bateragarri edo bateraezin.

- Bizikidetzaren helburua izan behar da nafar guztiok partekatzea **gutxieneko osagai** batzuk identitateari eta kulturari dagozkionak.
- Bizikidetzaren oinarria **diferentziari errespetua** da. Ez dugu tematu behar baliorik edo proiektu komunik partekatzean. Bizikidetzak, funtsean, tolerantzia da.
- Bizikidetzaren muina **kontsentsu berrien** etengabeko bilaketan datza. Nafar gizartearen proiektu kultural eta politiko ezberdinen onarpena eta, aldi berean, haiei buruzko eztabaida dakar.

Diferentziari begirunea izan zen adostasunik handiena jaso zuen baieztapena: eta, ildo horretan, garrantzia kendu zitzaion identitate eta kultura homogeneotasunari. Alta, kide batek baino gehiago adierazi zuen, berez, hiru baieztapenak bateragarriak izan zitezkeela prozesu gisa ulertuko balira, demokratikoki jardunez gero. Ildo horretatik, aipatu zen prozesu mailakatu eta iraunkorrak irudikatu behar zirela, eta, hortaz, demokraziarekin, kontsentsuarekin eta bizikidetzarekin harremanetan ipintzekoak, euskararen gaian, bereziki.

Ondoren, bizikidetza bermatze aldera, galdetu zitzairen kideei zeintzuk diren haien ustez aurkitu zitezkeen oztopo nagusiak. Adituen Taldean hainbeste aipatu ez ziren gai batzuk azaleratu ziren: hezkuntzaren eta etorkinen arteko harremana, hots, balizko segregazioa; biktima politiko guztien aitortza, preso politikoen hurbilketa eta, azken batez, kontakizun guztiek parte hartu beharra bizitza sozialean.

04.2 Gizarte Eragileen Mahaiaren bigarren bilera



EUSKO IKASKUNTZA
Asmoz ta Jakitez

Nafarroako Gobernua **Gobierno de Navarra** **AGENDA 2030**

CONVIVENCIA EN NAVARRA

Veamos y discutamos sobre estas diferentes posturas:

- El objetivo de la convivencia debe ser que todos los navarros y navarras compartamos unos mínimos culturales y/o identitarios que representen a toda la ciudadanía.
- La base de la convivencia es el respeto a la diferencia. No hay que poner el énfasis en compartir un proyecto común o unos valores determinados. La convivencia como tolerancia.
- La convivencia, entendida como búsqueda permanente de nuevos consensos, implica la aceptación y discusión de los diferentes proyectos culturales y políticos de la sociedad navarra

Bilerara etorri aurretik, taldekideei galdera sorta bat bidali zitzairen euren kabuz gogoeta egiteko. Haiek adierazitako erantzunak sailkatu eta gero, hortik ateratako dokumentua aurkeztu zitzairen eztabaidarako. Ondoren, dokumentuak zituen atalak eta kideen erantzunen laburpen bat aurkezten da:

1. BIZIKIDETZARAKO GUTXIENKOAK

- a. Zeintzuk dira, zure ustez, ezinbesteko baldintzak Nafarroan bizikidetzaz berba egin ahal izateko euskararen gaian?

Nolabaiteko harmonian zeuden erantzun guztiak. Oro har, aipatzen zen euskarari aitortu behar zaiola nafar bizilagunen ondare kulturala dela eta, ildo horretan, despolitizatu egin behar dela, edo ez dela erabili behar konfrontazio politikorako tresna gisa. Euskararen Legearen erreformari ekin behar zaiola euskara ikasteko eta erabiltzeko, berme juridiko batez. Eta, azkenik, kide batek proposatu zuen gutxieneko bat izan zen A eredu Nafarroa osoan indartzea; derrigorrezko egitea, alegia, gaur egun ikasleen %60k ez baitu inolako harremanik euskararekin; hau da, G ereduan dago.

- b. Zeintzuk dira, zure ustez ezinbesteko baldintzak Nafarroan bizikidetzaz berba egin ahal izateko identitate polarizatuen gaian?

Hiru baieztapen nagusi egin ziren, berez, elkarren osagarri jo litezkeenak. Lehena, aniztasuna aberasgarria dela ohartaraztea eta salbuespena dela kultura homogeneotasuna. Bigarrena, pertsona bakoitzarekiko enpatia bultzatzea eta hirugarrena proiektu politiko edo identitatearen ingurukoengana begirunea lantzea.

2. OZTOPOAK ETA AUKERAK

- a. Adieraz itzazu euskararen inguruan nafar gizartearen bizikidetzarako ustez oztopo diren hiru gai.

Oro har, euskarari behar duen balioa eta prestigioa ez ematea aipatu zen, bai eta horren ondorioz, elebitasuna onura sozial eta pertsonal gisa ez ikustea. Bigarren ideia nagusia euskararen erabilera politikoaren inguruan agertu zen, alde bitatik adierazita. Batetik, PSN eta UPN alderdiek erabilitako ustezko "inposizio" diskurtsoa; eta, bestetik, euskal nazionalismoaren aldetik euskara bere proiektu politikoaren zati gisa aurkeztea, zeinak arbuioa eta mesfidantza eragiten baitu abertzaletasunaren gogaide ez den jendearengan. Beste ideia bat lan merkatuari dagokio: pribilegioak galdu nahi ez dituen

sektore batek oztopatu egiten du euskararen presentzia erakundeetan euskara ikasteari uko eginez.

b. Adieraz itzazu Nafarroan euskararen inguruan bizikidetza bultzatuko luketen hiru aukera

Mota biko adierazpenak agertu ziren hemen. Agian aipatuena indar politikoen arteko adostasunak lortzea izan zen. Adostasun horren barruan, kontuan hartzeko kontzeptua, gorago ere aipatua, delako mailakatzea edo iraunkortasuna izan zen. Erran nahi baita, gatazka saihestea edo apaltzea euskararen inguruan. Erantzukizun hori arlo politikoari bizkarreratzen zaio eta PSN beren-beregi izan zen aipatua, haren jarrera aldatzeko aukera modura ikusita edo. Bigarrena, aldiz, izan zen euskara indartzea eta D eredua nafar lurralde osora zabaltzea.

c. Adieraz itzazu hiru oztopo, zure ustez, identitate polarizatuaren gaian, gaur egun nafar gizartearen bizikidetzarako traba direnak.

Hemen, aldiz, ildo desberdinei lotu ziren erantzunak. Batzuk biktima guztien aitortza eta, bereziki, estatuaren biktima izan direnekin justizia egitea. Besteren bat gizarte modernoaren ezaugarriak aipatu zituen, hala nola, indibidualismoa, herritarren parte hartze eskasa eta abar. Hedabideak eta hezkuntza sistema ere ez ziren salbatu, biei egotzi baitzitzaien bizikidetzan ardura gutxi ipintzea. Azkenik, arlo politikoaren zati bati (nafar eskuindarra) bizkarreratu zitzaion erantzukizunik handiena Nafarroako Gobernuaren Bizikidetzarako Plan Estrategikoari buruzko lan parlamentarioari uko egin baitio. Eta, beste batzuetan gertatu legez, Sinboloen Legea ere oztopotzat ikusten zen.

d. Adieraz itzazu hiru aukera, zure ustez, identitate polarizatuen gaian, gaur egun nafar gizartean bizikidetzarako lagungarri izan litezkeenak.

Batetik, arlo instituzionalean egon diren aldaketak onuragarritzat jo ziren, bereziki, alderdi politikoen arteko itunak, maila politikoan identitatearen inguruko gatazka bigundu edo apaldu egin lezaketenak. Beste alde batetik, nabarmendu zen nafar gizartean gero eta foro anitz gehiagoren sorrera dagoela eta hori onuragarria dela bizikidetzarako. Eta, azkenik, enpatia

lantzeko hizkera landu beharra aipatu zen, bestearen lekuan ipintzen ez baita inon irakasten. Baina, sarritan gertatu legez, oztopoak izendatzeko orduan askoz ere gauza gehiago zuen taldeak adierazteko aukerak aipatzeko orduan baino.

3. JARDUTEKO ARLOAK

Arestian esan bezala, proiektu honen helburuetako bat da zehaztea nori, zein erakunderi edo talderi legokiokkeen ardura edo erantzukizun nagusia bizikidetza lantzeko orduan. Hori dela eta, taldekideei ondoko galdera egin zitzaizkien:

- Zein da, zure ustez, bizikidetzaren gaiaz ardura hartu eta, ondorioz, kudeatu beharko lukeen erakundea edo taldea? Zehaztu zenezake nola jardun beharko lukeen (edo luketen) sumindura politikoa apaltzeko helburuarekin?

Hiru arlo aipatu ziren, berriro ere. Hezkuntza sistemak, jatorri eta ideia desberdinetako jendea biltzen duen neurrian, protagonismo handia izan beharko luke (eta, berez, ba omen du). Balio demokratikoen igorpena eta eguneroko bizikidetza lekua da eskola. Bigarrena, hedabideak, informazioa ideologizatzeari uko egiten baldin badiote. Eta, hirugarrena, arlo politikoa bera eta egitura instituzional osoa: Gobernua eta Parlamentua, alderdi politikoak, Udalak.. Horiekin batera agertu ziren herri mugimenduak eta mota desberdinetako sareak, gobernu kanpoko erakundeak,.. hau da, herritarrek osatutako talde guztiak.

Ikusten denez, nori legokiokkeen erantzukizun nagusia irudikatzeko gai dira taldekideak baina zail egiten zaie zehatz-mehatz izendatzea zein izan beharko litzatekeen haien jarduna, batez ere, arlo politikoari dagokionez.

05/ HERRITARREN MAHAIA



2019an egindako projektuan nafar herritarrekin kontrastatu nahi izan genituen Adituen Taldeak egindako baieztapenak edo adierazitako gogoetak. Oraingoan, aldiz, ahalegin berezi bat egin da nafar lurralde osoaren errealitateak islatzeko herritarren mahaian eta herritar euren kualifikazio berezia izan zezaten. Hartara, metodologian azaldu bezala, oso zona desberdinetako udal teknikariek osatu dute azken mahai hau. Kultura edota euskara teknikari izan dira guztiak eta asmo nagusia izan da ikustea Nafarroari buruz, bere osotasunean, bildutako ideiak zein neurritan aplikatu ahal zaizkien tokian tokiko errealitate anitzei, baina, logikoa denez, euskararen gaiari gertuago jarraituz.

Antolatu diren talde guztietan bezalaxe, lehenik eta behin 2019ko txostenaren ondorio nagusiak azaldu ziren eta, ondoren, 2020an zehar egindako eztabaiden eta foro guneetan adostutakoak aurkeztu zitzaizkien.

Honako hauek dira Nafarroan bizikidetzaz berba egin ahal izateko gutxieneko baldintzatzat agertu ziren ideia batzuk eta horiek eztabaidarako jarri ziren mahai gainean:


1. Euskarari begirune zabala aitortzea, nafar guztien ondare kulturala den heinean.
2. Euskararen irakaskuntza eta erabilera bermatzea, babes juridikoaren bidez.
3. Euskara konfrontazio politikorako tresna izateari uko egitea. Euskarari izaera politikoa kentzea.

Itxarotekoa zenez, oso errealitate desberdinak azaldu zituzten udal teknikariek euskararen harira, eta, ondorioz, planteatu zituzten irizpideetan aniztasun handia egon zen, ezberdintasunaren isla. Egia esan, Udal Teknikarien Mahaiak islatu zuen hobekien, gure ustez, Nafarroako lurraldearen eta herritarren aniztasuna. Kontziente ziren denak egoera soziolinguistiko desberdina ordezkatzeko zutela. Labur azalduta,

- Mendialdean (Zaraitzu eta Erronkari) eta eremu euskaldunean dauden Leitzan, Goizuetan eta Areson D eredua baino ez dago eskola publikoan. Ikasleen % ehun, gutxi gora behera, D ereduari dago matrikulatuta.
- Tafallak zona mistora pasatzea eskatu zuen 2017an. D eredua dago aspalditik dabilen ikastolan eta baita eskola publikoan ere. Gizartean bultzatuta, A eredua ere hazten ari da. Teknikariaren iritziz, *normaltasunez* garatzen ari dira euskal ereduak; nahiko onartuta dago gaia gizartean.
- Eremu ez-euskaldunean, aldiz, G eredua da nagusi. Ikasleek ez dute inolako harremanik euskararekin eta teknikariek eurek azalduta, euskararen gaia oso gatazkatsua da; *delikatua*, haien hitzetan. Salbuespen modura ulertu behar da Argia ikastola, orain hamarkada batzuk sortua Tuteran inguruan.

Nork bere ardurapeko eremuaren ezaugarriak, labur bada ere, azaldu eta gero, beherago agertzen diren aukera testua aurkeztu zitzaizkien teknikariei,

bai Adituen Taldean eta baita Eragileen Mahaian ere irtendako irizpideak edo proposamenak islatzen dituen euskararen harira eta, nolabait, lerro bateko mutur biak islatzen dituen:



Eztabaida hasita, argi ikusten zen zeinen errealitate desberdinetik hitz egiten zuen udal teknikari bakoitzak. Arinkerian jausi gabe, esan liteke hiru diskurtso azaldu zirela, Nafarroako geografiaren hiru eremuen erakusgarri. Era hartara, eremu euskalduneko euskara teknikari batek azaldu zuen berak onuragarritzat ikusten zuela A eredua zabaltzea G ereduaren orde. Jakitun egon arren euskara irakasgai modura baino ez agertzeak ez duela bermatzen haurren euskalduntzea, bere iritzia zen euskararen bidez ahalbidetu zezakeela, adibidez, etorkinen seme-alaben integrazioa eta, oro har, euskarak arrotz izateari utziko ziola. Horrez gain, hizkuntza eskubideak ere izan ziren aipagai eta kexua adierazten zen D ereduko ikasleek gaztelania ikasi behar dutelako ezinbestean, eta G eredukoek, aldiz, ez dutelako inolako harremanik euskararekin. Alabaina, eremu euskaldunean D eredua nagusia den neurrian, ez da somatzen horretaz inolako eztabaidarik. Herri hauetan frogatzen ari omen da posible dela euskaraz bizitzea. Eremu euskaldunean Administrazioak ere euskaraz jarduten du eta onartzen zen aurrerapauso handiak eman direla arlo honetan, orain hogeita hamar urte pentsaezinak zirenak. Hain zuzen ere, gatazkak *kanpotik* omen datoz, nafar administrazioetik: Osasunbidetik, adibidez, ez dagoelako pediatria euskaldunik bidaltzen. Aipagarria da, D ereduaren

zabalkundearen harira, Mendialdeko (Zaraitzu eta Erronkari) teknikariak ere adierazi zuela D eredua dela nagusia (edo bakarra, hobe esanda) eremu horretako eskola publikoetan, nahiz eta, berez, ez dira herri euskaldunak; hau da, XX. mendean galdu zen euskara inguru horretan. Izatez, eremu mistokoa da Mendialdea baina eremu euskaldunean balego bezala tratatu dugu aipatzen ari garen hainbat ezaugarri direla eta.

Hain zuzen ere, eremu mistoko teknikariek beste era batera hitz egiten zuten. Onartzen zuten espektro politiko osoaren alderdi politikoek aitortzen diotela euskarari Nafarroako hizkuntza izatea eta, haien hitzetan, maila askotan oso modu naturalean bizi da euskara eta gaztelania, bi-biak, direla nafar hizkuntzak. Baina, eremu euskaldunean ez bezala, Tafallako Udala, adibidez, ez dute inondik inora irudikatzen D eredua bultzatzeko kanpaina bat antolatzen. Izan ere, euskararen gaia oso gatazkatsua da Administrazioari dagozkion lan postuen esleipenean.

Euskararekin zerikusia duen orok gatazka sorrarazten du, diote eremu ez-euskalduneko teknikariek. Haietako batek azaltzen du, adibidez, izugarrizko ahaleginak egin behar izan dituela helduentzako euskara ikasteko talde bat sortu ahal izateko, hamaika oztopo aurkitu duelako tokiko administrazioaren aldetik. Euskarari dagokionez, eskolako hizkuntza eredu bakarra G da. *Euskarak jendea sumintzen du*, aitortzen du -penatuta- Erriberako udal teknikari batek. Eta horrela den bitartean, ez du ikusten irtenbide argirik. Eta, batez ere, arlo politikoari dagokionez, jendartean ez baita horrelako sumindurarik somatzen.

Udal teknikariek beren errealitatearen berri eman eta gero, ondoko galdera egin zitzaion:

Zeintzuk lirateke oztopoak eta aukerak, Nafarroa bere osotasunean hartuta, adierazitako proposamenek aurrera egin dezaten?

Eremu euskalduneko teknikari batek diskurtso landua, nolabait esatearren, aurkezten du. Nabari zaio asko pentsatu duela gaiari buruz eta pertsona politizatua dela. Haren iritziz, oinarri-oinarrizkoa da nafar guztiek onartzea euskara denona dela (Voxeko bozka emaileena ere, gaineratzen du). Honek ahalegina eskatzen duela aitortzen du, baina, horrela ez bada, *euska/hiztunen eskubideak urratzen dira*. Hizkuntza eskubideok, hala ere, mailakatuak izan beharko dira, tokian tokiko errealitatera moldatuta. Eta horren harira, hizkuntza eremu desberdinak egotea zeharo oztopo argia da, haren aburuz. Errealitateak ezberdinak izan arren, gehitzen du, eskubideak berdinak izan behar dira, nahiz eta egoerara moldatzen joan beharko diren, apurka-apurka.

Euskararen Legeak ezartzen duen delako zonifikazioa desagertu egin behar da, besteak beste, oso arbitrarioa delako. Hori dela eta,

“ ikasle batzuk garraiorako edo jantokirako laguntzarik ez dute D ereduan matrikulatuz gero, eta kilometro bira dagoen ondoko herrikoek bai.”

Nahiko adostasuna agertzen da udal teknikarien artean euskara lurralde osoan izan beharko litzatekeela hizkuntza ofiziala adieraztean, nahiz eta argi daukaten hizkuntza eskubideak ezin daitezkeela bermatu egun batetik bestera, denbora pasatu ahala baizik. Hala ere, eremu erdalduneko teknikari batek zehaztu nahi du oso zaila dela euskara politikatik bereiztea, beti egonen direlako euskararen alde dauden alderdi politikoak eta euskararen kontra (edo ez alde) daudenak. Nazionalismoarekin batera datorren ezaugarria da, haren ustez, zehaztea zer den *gurea* eta zer ez den. Nazionalismoaren balizko izaera baztertzailiaz eztabaidatu zuten teknikariek, baina eremu euskalduneko batek oso adibide argigarria ipini zuen eztabaidari amaiera emanez:

“Argi eta garbi egoera honen errua indar politiko jakin batzuk dute. Euskararen alde eginen balitz Osasunaren alde egiten den modu berean, ez litzateke hau guztia gertatuko.”

Hain zuzen ere, identitateen polarizazioaz galdetu zitzaizen ondoren udal teknikariei, azaldu eta gero Adituen Taldean eta Eragileen Mahaian adostu zela kultura demokratikoa eta proiektu politikoei begirunea bultzatu beharra zegoela. Hauexek galderak:

***Zer egiten ari da honen inguruan zure udalerrian? Zer egin zitekeen?
Zernolako oztopoak izendatu ditzakezu?***

Teknikari batek adierazi zuen ezer gutxi egin daitekeela honen inguruan politikariak eurak ez badaude konbentzituta. Udal teknikari modura, helburu integratzaileei ematen diela garrantzia adierazi zuen beste batek, bai euskararen gaian eta baita beste kultura batzuetako pertsonak erakartzen, ghettoetan bizi direlako. Horren harira, eremu erdalduneko teknikarien aldetik honako ideia hau agertu zen: udal politikariak ez omen dira ausartzen zenbait neurri hartzen herritarren protesten beldur.

“Antzinako pentsaera kontserbadoreak, frankismoak, zehatz-mehatz esanda, indar handia dauka oraindik ere bizilagunen artean eta hori bizikidetzarako oztopo handia da.”

Lizarrako teknikaria, ildo honetatik joanda, kezkatuta agertzen da euskararen harira gauzatzen ari den polarizazioaz. *Txarragora goaz*, baieztatzen du, zeren eta gazte jendea ere agertzen da sarritan euskararen kontra, lehenago, itxura denez, gertatzen ez zena.

Tafallako udal teknikariak, aldiz, adierazi zuen 2004tik dagoela Euskara Zerbitzua, UPN alderdiaren ekimenez. Baina ez omen zaio hornitzen diru nahikoaz eta, bere iritziz, guztiz geldirik dago gaia udal jardunean. Egia da adostasun handiagoa dagoela gaur egun euskararen erabilerari dagokionez baina ez dira gai eskaintza sendorik egiteko. Bere ustez, borondate politiko gabezia argia dago udal langileak euskalduntzeko, adibidez. Kultura mailan antolatzen dira euskarazko jardunak, baina, azalekoak iruditzen zaizkio horiek.

Azkenik, Mendialdeko teknikariak azaldu zuen udalerrri horietan ez dagoela gatazka politiko nabarmenik.

“Herri txikiak dira, denok ezagutzen dugu elkar. Ez da deus larririk gertatzen. Udal zerrenda guztiak independenteez osatuak dira eta horrek bigundu egiten du balizko gatazka, zerrenda berean oso ideologia ezberdineko jendea joan daiteke eta.”

06/ PROIEKTUAREN EMAITZAK ETA ONDORIO OROKORRAK

Gaur egun, eta agian Nafarroan gehiago, bizikidetza oso kontzeptu aipatua da, testuinguru desberdinetan egiten bada ere. Baina, sarreran esan bezala eta proiektuaren azalpenean agertu den moduan ere, aurkitu daitekeen lehenengo arazoa da ezin daitekeela jakin zehatz-mehatz zer esangura ematen zaion bizikidetza kontzeptuari.

06.1 Bizikidetzaren esangura eta mugak zehaztuz

Balio moral bat da bizikidetza? Bestela esanda, ezinbestean lortu beharreko zerbait da, gizartearentzat eta herritarrentzat onuragarria delakoan? Talde Eragilearen abiapuntua baiezkoa izan da. Eta halaxe agertu da ere zenbait hizlariren berbaldietan. Izan ere, Eragilean Mahaiko kide batek adierazi zuenez, ez dira berdinak pluraltasun politikoa eta aniztasun kulturala. Lehena logikoa da, demokraziari dagokio. Besteak bizikidetza arazoak ekarri ahal ditu eta horixe da arautu behar dena, landu behar dena.

Esan behar da, lehenik eta behin, sarritan *bizikidetza* eta *jardun demokratikoa* parekide modura erabiltzen direla. Baina badu zentzurik joko demokratikotik harago zerbait gehiago bilatzeak? Desberdin pentsatzen, sentitzen edo jarduten duenarekiko begirunea egonez gero, hau da, herritarren aniztasuna *demokratikoki* kudeatzen baldin bada, zer gehiago erantsi dezake bizikidetzak? galdetzen du Adituen Taldeko kide batek. Bizikidetzaren behar gorria zalantzan ipintzen dutenez gain, aurkitu dugu bizikidetzaz hitz egiteko pizgarri handirik ikusten ez duenik ere, kasu honetan euskararen aldetik, euskal hiztunak bigarren mailako nafar izatera kondenatuak bizi omen direlako. Egon da ere *adiskidetasun zibikoa* lortzeko ahalegina planteatzen zuenik, protagonismoa emanaz norbanakoek osatutako talde desberdinei, administrazioetik aparte. Hizlari gehienak, dena esan behar da, ez dira ausartu -

edo ez dute nahi izan- bizikidetzari balizko agertoki bat proposatzera, gutxieneko arau sorta bat iradokitzen. Batzuen iritziz marko hori eginda dagoelakoan: espainiar Konstituzioa da. Beste batzuen ustez, arau horiek, nola edo hala, eraikitzen ari direlako dagoeneko; ahalegin handiak egin omen dira nafar administrazioaren aldetik azken urteotan lan eskerga horri ekiteko, nahiz eta, agian, ez da jakin gizarteratzen. Eta, beste batzuen iritziz, ez duelako merezi: justizia sozialak eta nafarren ongizateak osatzen dute nafar identitatea eta horretan datza bizikidetzaz.

Ikusi bezala, bizikidetzari buruzko ardura hori belaunaldi zaharrari dagokiola uste zuenik ere egon da Adituen Taldean. Eta uste berbera errepikatu zen Eragileen Mahian, alegia, belaunaldi gazteak ez daudela *hain* kezkatuta bizikidetzaz; are gehiago, pentsatzen dute denbora pasatu ahala, nafar gizartean ustez dagoen asaldura apaldu egingen dela eta maila *normaletan* garatuko dela eztabaida politikoa. Pentsamendu hori azaleratu zuten gehienak ez ziren *apolitikoak*, alderantziz baizik. Nola ulertu behar dugu pentsamendu hori? Arrazoi bat baino gehiago aipatu daiteke. Egia da proiektuan antolatu diren hiru taldeetan gazteak egon direla baina, oro har, batez besteko adina, batez ere Adituen Taldean, nahiko altua izan da. Erran nahi baita, aztertzeak litzateke zein punturaino bizikidetzaren gaia gaitortuta geratu litekeen belaunaldi gazteak ardura sozialak eta politikoa hartzen diren heinean. Bigarren arrazoi bat ere egon liteke eta hau da: bizikidetzaz eta bere ifrentzua den asaldura kulturala edo politikoa, hizkuntza eta nazio identitateaz gain, memoria historikoarekin eta biolentziaren biktimekin ere ipini da batzuetan harremanetan, Udal Teknikarien mahaian ez ezik, beste bietan. Pentsatzekoa da, arlo honetan ere engaiatuta dagoen jende gehiena ez dela izan oso gaztea. Ezin da irudikatu modu berean biziko dutenik frankismoak eragindako biktimekin aitortza, adibidez, belaunaldi gazteek zein zaharrek.

Hizlariaren kokapena garrantzitsua da, hortaz, bizikidetzari buruzko diskurtsoaren gakoez jabetzeko. Baina, orokorrean hitz eginda, nori ardura dio bizikidetzaz? Gai arantzatsua da hau, esan gabe doa. Talde Eragileak zin egin dezake, zalantza izpirik gabe, 2019an eta 2020an egondako foro guztietan parte hartu duten estilo askotako nafarrak arduratuta daudela bizikidetzaz; edo bestela esanda, ez daude oso gustura gaur egungo nafar gizartean soma daitekeen asaldura politikoa. Hortik dator, berez, haien prestasuna horrelako eztabaidetan parte hartzeko. Gizarte hobe baten alde lan egiteko (edo gutxienez, denbora inbertitzeko) prest daude. Eta ez da gutxi, inondik inora. Alabaina, eta inoren asmo onak zalantzan jarri gabe, bizikidetzaz gizartearen

zati batek, batez ere, hitz egiten du. Bereziki, ardura sozial, kultural edo politikoren bat dutenek bizikidetza euren erantzukizun modura ulertzen dute; aurrera eraman nahi dituzten egitarauak balizko blokeoa gainditu nahi dute. Oro har, sinetsita daude aurrerapausoak eman direla aspalditik eta gehiago ere emanen direla, eta adibide modura jartzen dute Nafarroako Gobernuaren organigraman Bizikidetza, Bakea eta Giza Eskubideen Zuzendaritza egotea eta Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa bultzatu izana.

Honaino aipatu dugu kontuan hartzekoak direla bizikidetzaren definizioa eta beharrezakoa, hizlariaren belaunaldia eta, azkenik, kokapen sozial eta politikoa bizikidetzaz egon litekeen ardura ulertzeko. Eta bizikidetzaren osagai bat ere agertu da: nazio identitatea. Ez da bakarra, hainbat bider esan dugunez.

06.2 Bizikidetzari buruzko eztabaidaren osagaiak (1): Euskara eta nazio identitatea

Talde Eragilea saiatu da hizlariak euskararen eta nazio identitateen inguruan gogoeta egin zezaten, baina, batez ere, euskara izan da gai izarra, 2019an gertatu zen bezalaxe. Argitzeke geratzen da ea nazio identitatearen gaiari garrantzirik ez zaion ematen, ala euskara bera den nazio identitatearen inguruko eztabaidaren isla, euskal nazionalismoak euskarari ematen dion garrantziari jarraiki. Zentratu gaitezen, hala ere, gure lanean jasotakoan.

Euskararen inguruko jarrerak 2019an baino askoz argiago agertu dira. Horrela esan ahal bada, inor ez da agertu euskararen kontra eta denek onartu dute oinarritzko premisa hau: euskara nafar guztien ondare kulturala da eta halaxe ulertu behar da erakunde eta herritar guztien aldetik. Baina hortik aurrera lau jarrera, gutxienez, detektatu ahal izan dira. Horietako bat euskal hiztunen hizkuntza eskubideen etengabeko urraketaz haserre eta minduta daudenek osatzen dute. Nazio identitateaz gutxi hitz egiten dute, baina bai sutsu eta oso barnetik euskararen alde (agian euskara eta nazioa parekatzen dutelako). Sektore horrentzat Euskararen Legea eta, hari lotuta, nafar lurraldea hizkuntza zona ezberdinetan bereiztea oztopo argia dira euskararentzat eta eraso bortitza euskal hiztunentzat, bigarren mailako herritar bihurtzen baitira:

haiek ezin dute inola ere gaztelania alboratu eta euskaraz ez dakitenek, aldiz, egin dezakete. Lehenak elebidunak dira, kulturalki aberatsagoak, *anitzagoak*, eta bigarrenak, ordea, kulturalki herrenka dabilta, Nafarroak dituen hizkuntza bietako batean analfabeto baitira. Uste dute nafar instituzioek, tamalez, ez dutela behar besteko ekimenik egiten edo indarrik jartzen egoera errotik aldatu dadin. Hizkuntza eskubideak errespetatzen badira, elebitasunera heltzeko baliabideak jarri behar dira eta, ondorioz, hezkuntza sisteman D eredua bihurtu behar da nagusi. Bizikidetzeta eta aniztasuna bera tranpa modura salatzen da kasu honetan, azken batez, euskal hiztunak direlako amore eman behar izaten dutenak. Sumindura nabari da eta, horrelakoetan, oso zaila da bizikidetzaz hitz egitea.

Oso kontrako jarrera defendatzen du beste iritzi ildo batek. Kasu honetan euskara nafar kulturaren ondarearen zati dela onartu da zalantzarik gabe, baina mesfidantza agertu da, behin eta berriz, euskara *inposatu* egin nahi omen delako, herritarren borondatearen kontra eta helburu politiko ezkutu batekin: euskal nazionalismoa hedatzea (zeharka euskara eta nazio identitatearen lotura agertuko litzateke hemen). Jarrera honetan zeharo deitoratzen da administrazioak egin lezakeen euskararen erabilera, eguneroko bizimoduan erdaldunekiko diskriminazioa eragin bailezake administrazio publikoan lanpostuei euskara mailaren bat esleitzen zaien momentuan. Ondorioa: euskara maitatu bai, baina *inposatu* gabe. Eta dagokion lurraldean. Ez omen da *naturala* Castejoneko errepide seinaleak ele bitan egon beharra, adibide bat jarrita. Egin ditugun mahaietan sektore hau ez da agertu suminduta, baina bai mesfidati, gorago esan bezala. Hezkuntza sistemari dagokionez, gutxieneko modura ez dute onartzen A eredua zabaltzea nafar lurralde osora, herritarrek hala eskatzen ez badute, behintzat. Noraino balioesten dute bizikidetzeta? Zail da asmatzea, egia esan. Agian ausartu gintezke baieztatzeraz beste sektoreari baino erosoago ikusten zaiola, tradizio sendo eta hegemoniko baten oinarri gisa eta balizko inposizioei aurre egiteko beste indar eta babes sozialekin.

Erdian, nolabait esatearren, ditugun bi jarrerak gauza asko partekatzen dituzte, baina ez dituzte azaltzen helburu berdinak. Hartara, badago sektore liberal/ezkertiar bat, euskararen aldekoa, giza eskubideen defentsa helmuga nagusitzat hartzen duena, ontzat jotzen duena euskararen zabalpena borondatean oinarritua egotea baina, aldi berean, kontziente dena arau guztiek izaten dutela obligaziotik zertxobait. Ildo horretan, jabetzen da Euskararen Legea oztopo dela euskararen zabalpenerako eta zonifikazioaren kontra agertzen da. Baina arestian aipatu dugun euskaltzaleen sektorearekin

alderatuta, ardura handiagoa erakusten du nafar gizartearen aniztasun kulturalaz, eta ez du euskara nazio identitatearekin lotzen. Izan ere, aniztasuna, batez ere, balioesten du, eta zentzu horretan, homogeneousotasun nahiak arbuiazen ditu. Nafar identitatea eraiki beharraz zalantza asko agertzen ditu, gorago esan bezala, euskaraz eta nazio identitateaz bakarrik hitz egiten denez gero, ahaztu egiten direlako bestelako aniztasun kulturalak, erlijiozkoak, eta abar. Horren guztiaren ondorio da distantzia handiagoa hartzen dutela eztabaidan, hots, diskurtso *lasaiagoa* adierazten dute.

Azken jarrera bat geratzen zaigu, agian konplexuena euskararen eta bizikidetzaren arteko harremanen testingurua azaltzeko orduan. *Erdian* kokatzen dugu, ez duelako bat egiten goiko jarrerekin, batez ere euskararekiko mesfidantza azaltzen dutenekin. Izan ere, euskaltzaleak dira, bete-betean, baina gatazka darion egoera oro saihestu nahi dute. Herritar hauek dira, apika, bizikidetzaren diskurtsua lantzeko interes gehien agertzen dutenak. Nolabait, behartuta daudela ere esan liteke, ardura politiko eta soziala duten neurrian. Gure Adituen Mahaian eta Eragileen Mahaian halako kideak eduki ditugu; gatazkaren kudeaketan inplikaturik egon direnak, alegia. Eta modu zuhur edota uzkurrian jokatzen dute euskararen inguruko neurrietan, oihartzun sozial handia duen nafar eskuinaren presioaren aurrean. Arestian aipatu ditugun euskaltzaleekin erkaturik, beraz, ez dute sumindurarik agertzen, sumindura baretu nahi dute, ordea. Eta, horretarako, euskararen inguruko balizko kutsu nazionalista kentzen saiatzen dira, eta Euskal Autonomia Elkargotik bereizteko nolabaiteko ahalegina egiten dute. Nafarren izenean hitz egin nahi dute beti, ordea, euskal nazionalismoaren menpeko direlako susmo guztiak ezabatu guran. Adituen Taldeko batek argi eta garbi planteatzen du arazoa. Nafarroan gizartearen zati bat euskal herritar sentitzen da eta beste zati bat espainiar: lortu beharko litzateke zati biek ordezkaturik ikustea euren burua bizitza politikoan, sozialean eta kulturean.

Ez dugu pentsatu behar, azaldu bezala, lau jarrera hauek modu bateratuan jokatzen dutenik euskarari dagokionez. Batzuek ez dute aldaketarik proposatzen, eta hortaz, ez dute arrazoi berezirik ikusten ikasle nafarren %60k jarraitzen duen G eredua aldatzeko. Beste aldean, badira D eredua Nafarroa osoan orokortzearen aldekoak (progresiboki, baina eredu bakarra izatea lortu arte). Eta badira, azkenik, A eredua nafar haur guztiei zabaltzea eskatzen dutenak gutxieneko modura eta, ondorioz, nafar administrazioak horri ekitea. Beste alde batetik, asko dira Euskararen Legeak dakarren zonifikazioa bertan behera uztea proposatzen dutenak. Edozein modutan, uste zabalduta da euskararen aldeko neurri guztiek nafarren oniritzia izan behar dutela, ezin direla

izan gatazka iturri, eta euskararen zabalpena mailakatua, ondo pentsatua eta inposizio kutsurik gabea izan behar dela.

Honaino deskribaturiko lau soslai hauek eraikitzeak estereotipoetan jausteko arriskua dakar, ezinbestean, baina uste dugu onuragarria dela nolabaiteko sailkapena egitea nafar gizartearen baitan garatzen den pentsamendu konplexutasuna ulertzeko, neurri batean, behintzat. Eta berdin gertatzen da bizikidetzaren bestelako osagaiak azaltzeko orduan ere.

06.3 Bizikidetzari buruzko eztabaidaren osagaiak (2): Nafar identitatea eta gizartearen parte hartzea

Gorago genioen moduan, egon dira hizlariak nafar identitate sendo bat eraikitzeari garrantzia kendu diotenak, beste gauza asko partekatu daitezkeelako identitate bakarra egon barik. Ez da izan jarrera nagusia, ordea. Izan ere, 2019an zehar egindako foroetan nabarmendu zen herritarrak, oro har, pentsamendu eta kokapen sozial guztiak albo batera utzita, harro sentitzen direla nafar izateaz. Beraz, ondorioztatu genuen, nafar identitatea egon badago, batzuentzat Nafarroako banderan edo Osasunan islatua eta beste batzuetan Baztaneko pagadietan edo euskararen agertzen dena. Identitatearen osagaiak anitzak dira; horixe izan zen 2019ko proiektuaren ondorioetako bat. Baina nafar identitatea egon badago. Eta, gehitu genezake, hori onuragarria da edozein gizartetan, frogatuta baitago gainerako herritarrekin zerbait konpartitzen dela sentitzen bada (eta, azken batez, horretan datza identitatea) gizarte demokratikoek hobeto funtzionatzen dutela.

Talde eragilea ahalegindu da galdera honi erantzuna bilatzen: zerk batu ditzake nafar herritarrak? Non bilatu beharko lirateke kohesiorako osagai komunak? Eta nori legokioke ardura nagusia? Argi edukita helburua ez dela, dagoeneko esanda geratu da, gizartearen homogeneousazioa. Beraz, aniztasuna aintzat hartuta, nola edo hala, herritarren arteko kohesioaz baino lurralde kohesioaz hitz egin da. Zerk lagunduko luke Nafarroa baturik egoten?

Ikusi ahal izan dugunez, mota guztietako erantzunak adierazi izan dira: garraioa hobetzea, barne turismoa bultzatzea,.. eta, sarritan, hezkuntza

sistemari behar duen protagonismoa ematea herritarren elkarrekiko ezagutza bermatze aldera. Mundu bat baino gehiago dago Nafarroan eta horretaz jabeturik agertu dira kide gehienak. Batzuetan, ezagutzarik eza bera gatazka iturri izan liteke, gehitzen dute batzuek. Deszentralizazioa, eskualdeka proiektu ekonomikoak lantzea eta udalei eskuduntza gehiago ematea aipatu dira, ikusi bezala, nolabaiteko irtenbide gisa.

Baina ezin daiteke esan euskararen gaiaren kasuan bezain diskurtso landurik aurkitu dugunik. Nafar identitatea -eta, berez, lurralde kohesioa-indartzen omen duten sinboloek dagokienez, adibidez, ez da egon bat ere aho batasunik eta, gehitu liteke, eztabaida handirik ere ez du sortu gaiak. Uste sendoa ageri da sinboloak erabiltzeko eskubidea bermatu behar dela, giza eskubideak ez badira kaltetzen. Edo beste komunitate batzen sentimenduak ez badira gutxiesten edo iraintzen.

Batzuen iritziz, herritarrak era ukaezinean batzen dituen osagaien alde egin behar da (Osasuna, adibidez). Euskal nazionalismotik hurbil egon diren batzuek ikurrina aipatzen dute eta beste batzuek Nafarroako Erresumako bandera, adibidez. Oro har, dena dela, sinboloek ez dute kezka berezirik eragiten, ez, behintzat, euskarak sortzen duenarekin alderatuta. Eta lurralde kohesiorako beharrezko osagaiak irudikatzeko orduan, esan bezala, gutxi landutako diskurtsoak ageri dira. Are gehiago, batek baino gehiago prestasuna adierazten du Sinboloen Legea onartzeko (hura dela medio, alkate abertzale batzuk auzipetuta daudela ez da ahaztu behar) Euskararen Legeak ezarritako hizkuntza eremuak desagertuko balira.

Azkenerako, beraz, utzi dugu 2019an ere luzatu genuen galderaren erantzuna: zer emateko prest egonen zinateke bizikidetza bermatze aldera? Hemen ere aurrekoan esandakoa errepikatzea baino ez dagokigu. Orokorrean, eta logikoa denez, jende guztiak uste du bera ondo ari dela, zuzena dela eskatzen duena eta ez duela irudikatu ere egiten zertan eman lezakeen amore. Ariketa hau ez da oso gustukoa mahaietako kideen artean. Batzuek argi eta garbi esaten dute ez zaiela gustatzen *amore emate* kontzeptu hori; garaituaren hizkera dakarkiola gogora. Baina, jakina, amore emate hori irudikatu ezinak badu alde kezkagarri bat: zein punturaino dago prestasuna nafar eremu sozial eta politikoan gutxieneko kontsentsuak adosteko? Azken batez, badirudi abagune politikoak maila esanguratsuan baldintzatzen dituela bizikidetzaren inguruko jarrerak eta, ondorioz, gizarte arlo askotako eragileek eta erakundeek luzaz jorratu beharreko eremua dela. Eta ez dugu aurreikusten oso samurra

izanen denik, epe laburrean, behintzat. Kultura demokratikoaren sakontzearekin batera indartu ere egingen da bizikidetza lantzeko gogoia.

Honekin ez dugu, inondik inora, bizikidetza kontzeptuari garrantzirik kendu nahi. Izan ere, baikortasunerako zantzurik ere badago hizlarien adierazpenetan. Lehena, gertutik ikusi ahal izan dugu: Mahai guztietan entzun dugu kideen esker ona horrelako foro anitzetan parte hartzeko aukera emateagatik. Denek aitortu dute beharrezkoak direla iritzi trukaketa lasaiak. Sarritan ere adierazi da giro soziala asko hobetu dela azken hamarkadan eta sumindura maila, beraz, jaitsi egin dela. Eta, bigarrena, azkenik, gorago esan bezala, egon diren kide gazte gehienek nolabaiteko esperantza adierazi izana: belaunaldi gazteak prestasun handiagoa omen du ideologia eta identitate atxikimendu desberdineko jendea biltzeko, arazo handirik gabe.

07/ AZKEN GOGOETA. ETORKIZUNERAKO ILDOAK

Kontzeptu korapilatsua dugu bizikidetza. Kontrako gutxi batzen ditu, baina, errealitatera joanda, aldeko asko lortu gabe. Tartean geratzen dira gehienak, entusiasmo gehiegirik gabe. Askok ez dute konfiantza handirik adierazten kontzeptuan, gehienbat ez direlako *besteez* fidatzen. Eta zer da bizikidetza konfiantza puntu minimo bat ez badago? Konfiantza, ordea, ez da ezerezetik sortzen den sentimendua; landu egin behar da, eta Nafarroan badu bidea egiteko. Gure ustez, azterketa zabalagoa eskatzen duten zenbait ertz ageri dira bide horretan.

Gure lanari lotuta, euskara eztabaida puntu nagusi bihurtu da. Denek aitortzen diote errespetua edo miresmena, eta inork ez du ukatzen nafar ondare kulturalaren zati dela. Horretan adostasun zabala badago, zergatik, orduan, hainbeste eztabaida euskarari bultzada emateko momentuan? Zer eragin zehatz dauka euskararen alde agertzeak erakundeen aldetik?

Politizazioa da arazoa? Zeintzuk dira euskara eta nazio identitatearen arteko harremanak? Batzuek euskararen despolitizazioa aipatu dute behin eta

berriz, hura zabaltzeko baldintza modura. Baina zer esan nahi du, zehatz-mehatz, balizko despolitizazio horrek? Ez dagoela konpromiso politikorik? Eztabaida agenda politikotik ezkutatu behar dela? Euskara zaintzea helburu partekatua bada, posible da inolako bulkada politikorik gabe euskararen alde egitea administrazioaren aldetik? Hau da, nafar administrazioa neutral modura agertu behar da euskararen inguruan ala euskararen alde egin behar du nafarren hizkuntza delako? Zer balorazio egin daiteke orain arte egindakoaz?

Beste aldetik, gehiegizko politizazioaz hitz egitean, elementu berri eta esanguratsua aipatzen da askotan, eta guk ere hala jaso ahal izan dugu, belaunaldi berrien jarrera irekiagoa, alegia. Izan ere, ondorioetako bat izan da belaunaldi gazteek ez omen dutela modu berean ikusten, sentitzen, pentsatzen, balizko gatazka politikoak eragiten duen krispazioa edo ezinegona. Garrantzitsua dirudi, orduan, identitate arazoa, hizkuntza, eta aniztasun kulturala nola bizi duten aztertzea. Era horretara, etorkizunera begira, etorkizuneko nafar gizarte nola irudikatu litekeen pentsatzen hasteko.

BULEGO NAGUSIAK

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48
20007 - DONOSTIA
T. 943 310 855 | Fax 943 213 956
E: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ARABA

Pedro Asua 2 - 2 / 63 bulegoa
01008 - GASTEIZ
T. 945 231 552
E: gasteiz@eusko-ikaskuntza.eus

BIZKAIA

Uribitarte ibilaldia 10. Behea
48001 - BILBO
T. 944 425 287
E: bilbo@eusko-ikaskuntza.eus

IPAR EUSKAL HERRIA

51, quai Jauréguiberry
64100 - BAIONA
T. 559 598 290 | F. 559 461 844
E: baiona@eusko-ikaskuntza.org

NAFARROA

Gaztelu plaza, 43 bis, 4. D
31001 - IRUÑEA
T. 948-222105
E: iruna@eusko-ikaskuntza.eus